



Ebazpena, 2021ko martxoaren 8koa, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariarena, zeinen bidez deia egiten baita Musikene Goi Mailako Musika Ikastetxe Baimenduan sartzeko 2021-2022 ikasturterako goi-mailako Musika sarrera-proba egiteko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatuta, 54.2 artikuluan ezartzen duenez, musikako goi mailako ikasketak egin ahal izateko, beste hainbat betebeharrak akademikoez gain, sarrera-proba ere gainditu behar da, eta proba horretan, izangaiak erakutsi behar du ikasketak probetxuz egiteko beharrezkoak diren ezagupen eta gaitasun profesionalak badituela.

Sarrera-probak gaindituta 2021-2022 ikasturtean aukeratu daitezkeen espezialitateak esplizituki aipatzen dira araudi honetan, eta maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan zehaztutako espezialitateen zerrendan jasota egongo dira.

Aipatutako errege-dekretu horren 5.4 eta 5.5 artikuluen arabera, hezkuntza-administrazioei dagokie, beren eskumen-eremuaren barruan, ikasketa horiek egiteko sarrera-proba berezia egiteko deialdia egitea eta hura antolatu, aurrera eramane eta ebaluatzea. Ondorioz, honako hau ebatzen dut:

#### 1.– Helburua.

Agindu honen xedea da 2021-2022 ikasturtean Musikako goi-mailako arte-ikasketetan sartzeko probak egiteko deia egitea; proba horiek egitea Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan aurreikusten da.

#### 2.– Espezialitateak.

Hona 2021-2022 ikasturterako Musikenek eskaintzen dituen espezialitateak:

a) Tresna hauekin interpretatzea:

- Akordeoia
- Harpa
- Kantua
- Klarineta
- Kontrabaxua
- Fagota
- Zehar-txirula
- Gitarra
- Jazza (baxu elektrikoa, bateria, kantua, kontrabaxua, gitarra, pianoa, saxofoia, tronboia eta tronpeta)
- Oboea
- Organoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia



- Tronboia
- Tronpa
- Tronpeta
- Tuba
- Biola
- Biolina
- Biolontxelo
- Txistu.
- b) Konposizioa.
- c) Zuzentzea.
- d) Pedagogia.

### 3.- Sartzeko betekizunak.

3.1.- Musikako goi-mailako arte- ikasketetan sartzeko, maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Hona baldintzak:

1) Batxiler-titulua izatea edo Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gaindituta izatea.

2) Berariazko sarbide-proba bat gainditzea. Proba horretan, ikasketak probetxuz egiteko beharrezkoak diren lanbide-jakintzak eta lanbide-trebetasunak dituztela frogatuko dute izangaiek.

3.2.- Musikako lanbide-titulua izatea ere kontuan hartuko da probaren azken kalifikazioan, 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan ezartzen denez. Maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuko 5.7 artikuluekin bat etorriz, Agindu honen bidez ezartzen da sarrera-probako azken notaren % 20 izango dela izangaien lanbide-ikasketen espedienteko batez besteko nota, beti ere berariazko proba gaindituta badute.

3.3.- Era berean, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 69.5 artikulua araberan, ikasketak egiteko adin baldintza betetzen dutenek, 3.1 artikulua 1. idatzi-zatian jasotako baldintzak betetzen ez badituzte ere, musika-ikasketen goi-mailako ikasketak egiteko aukera izango dute, baldin eta proba bat gainditzen badute, hau da, ariketa berezi bat egiten badute egiaztatzeko Batxilergoaren helburuetan lortutako heldutasuna eta irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrezkoak diren jakintzak, trebetasunak eta gaitasunak dituztela.

3.4.- Hemeretzi urtetik gorakoek, maiatzaren 14ko 631/2010 Dekretuak, 5.1 artikuluan jasotako baldintzak betetzen ez badituzte ere, musika-ikasketen goi-mailako ikasketak egiteko aukera izango dute, baldin eta Lanbide Heziketako Goi Mailako ziklo bat egiteko proba gainditu badute, non egiaztatu duten Batxilergoaren helburuetan lortutako heldutasuna eta irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrezkoak diren jakintza eta gaitasunak dituztela.

3.5.- Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak bere 69.5 artikuluan ezarritako adin betekizuna dutenek eta ebazpen honetan 3.1, 3.2 edo 3.4 ataletan finkatutako betekizunak ez dituztenek, sarbide probaren lehenengo atala egin beharko dute. Proba hau gainditu beharko da sarbide probako beste atalak egin ahal izateko. Lehenengo atal hau Musikenen egingo da ekainaren 11an goizeko 10:00etan.



#### 4.– Sarrera-probaren ondorioak eta baliozkotasuna.

Musikako goi-mailako ikasketetan aritzeko sarrera-proba gainditzeak bakar-bakarrik ematen du aukera proba-deialdiko ikasturtean matrikulatzeko, alegia, 2021-2022 ikasturtean matrikulatzeko. Horrenbestez, proba gaindituta plaza lortu ezean, goi-mailako ikasketa hauetan aritzeko interesa izanez gero, izangaiek proba osorik errepikatu behar dute hurrengo deialdietan.

#### 5.– Probak egitea.

5.1.– Musikenen musikako goi-mailako ikasketetan aritzeko sarrera-probak 2020ko ekainaren 14a eta ekainaren 26a bitartean egingo dira ikastetxean bertan. Espezialitatearen batean plazarik hutsik geratuz gero, beste sarrera-proba bat egiteko deialdia egin ahal izango da 2021ko irailean, eta behar den moduan iragarriko da ikastegiko web orrian.

5.2.– Musikeneko web gune ofizialean ([www.musikene.eus](http://www.musikene.eus)) gutxienez astebete lehenago argitaratuko da zein egunetan eta ordutan egingo diren proben atal guztiak; era berean, bestelako informazio garrantzitsu guztia ere bertan azalduko da.

#### 6.– Epaimahaiak.

6.1.– Espezialitate baloitzeko epaimahai bakarra izendatuko da. Gutxienez ere hiru kideko kopuru bakoiti batek osatuko du epaimahaia. Kideak dagokion espezialitatekoak izango dira; edo, bestela, antzeko espezialitateetakoak.

6.2.– Sarrera-proba zuzen baloratzeko, ariketen espezialitateko irakasleen aholkularitza izan dezake epaimahaiak, beharrezko baderitzo.

6.3.– Musikeneko organo eskudunek izendatuko dituzte epaimahaiko kideak.

#### 7.– Sarrera-proben egitura eta edukia.

7.1.– Sarrera-probaren oinarritzko egitura 631/2010 Errege Dekretuaren 5. artikulua deskribatzen du.

7.2.– Sarrera-proben egitura eta edukiei buruzko informazio guztia [www.musikene.eus](http://www.musikene.eus) web gunean argitaratuko da.

#### 8.– Izena emateko eskabidea.

8.1.– Izena emateko eskabidea hurrengo prozedura jarraituz osatuko da:

1.- Musikeneko webgunean "Goi mailako titulua, sarbidea eta onarpena" horretarako espresuki prestatuturiko formularioa bete .

2.- Posta elektronikoz [sarrera.frogak@musikene.eus](mailto:sarrera.frogak@musikene.eus) helbidera hurrengo dokumentuak bidali beharko dituzte: NANaren edo indarreko pasaportearen fotokopia eta deialdi honen 9. atalean adierazitako inskripzio-eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

8.2.- Prozesu biak 2021ko martxoak 24 eta maiatzak 24 bitartean burutu beharko dira.



8.3.– Inskripzioa ez da burutuzat joko harik eta arestian aipatutako dokumentu guztiak Musikenera iristen diren arte. Hautagaiak email bat jasoko dute webgunean inskripzioa egiten dutenean eta baita ere [sarrera.frogak@musikene.eus](mailto:sarrera.frogak@musikene.eus)-era bidalitako dokumentazioa jaso izanaren mezua ere

8.4.– Ez da onartuko web gunetik edo posta elektronikoz 2021ko maiatzaren 24az geroztik bidalitako inskripziorik.

8.5.– Eskaera egitean, izangaiak idatzita adieraziko dituzte zein espezialitate aukeratzeko duten, eta gehienez ere hiru aukeratzeko dituzte.

9.– Inskripzioaren prezioa.

9.1.– 2021-2022 ikasturteko sarrera-proben deialdirako Musikene 80 euroko inskripzio-prezioa jarri du eskaintzen dituen espezialitate guztietarako. Zenbateko hori ordainduz gero, bakar-bakarrik izango da eskubidea dagokion sarrera-proban parte hartzeko, eta ez ditu jasoko izangaiak izan ditzakeen gastuak, hau da, musikari laguntzaileek parte hartzeak ekarri ditzakeen gastuak.

Ondoren zehaztutako kontu korrontean ordaindu, eta ordezkagiria Musikenera bidali beharko da, gainerako dokumentuekin batera, aurreko idatzi-zatian ezarritakoaren arabera.

Musikeneren banku-datuak:

Bankua: Kutxabank

Helbidea: Garibay kalea, 15; 20004 Donostia-San Sebastián

Erakundea: 2095 Bulegoa: 0611 DC/kontu-zenbakia: 04 1062407878

IBAN kodea: ES25 2095 0611 0410 6240 7878

SWIFT-BIC kodea: BASKES2BXXX

9.2.– Izangai batek hainbat espezialitate aukeratzeko baditu, espezialitate beste eskubide ordaindu beharko ditu.

10.– Probaren kalifikazioa.

10.1.– Sarrera-proba arruntari zero eta hamar arteko puntuazioa emango zaio, eta atal bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko haztatua izango da. Batez besteko haztatu horretan atal bakoitzak duen pisu handiagoa edo txikiagoa espezialitateko ezaugarriekin duten erlazio handiagoaren baitan izango da.

10.2.– Sartzeko betekizunak ez dituztenek eta ebazpen honetan 3.5 puntuan agertzen den ekainak 11ko proba egin behar duten ikasaleen proba hori kalifikatzeko ere zero eta hamar arteko puntuazioa emango da. Baztergarria izango da, eta beharrezkoa izango da 5 puntu edo gehiago lortzea sarrera-proban parte hartu ahal izateko.

10.3.– Sarrera-proba gainditzeko, puntuazio orokorra bost edo handiagoa izan behar da. Epaimahaiek Musikeneko iragarki-taulan eta webgunean argitaratutako dituzte sarrera-proben emaitzak, kalifikazio orokorrak eta atal guztietakoak. Behin betiko emaitzak aktetan adieraziko dira.

10.4.– 1/1990 Lege Organikoaren arabera, Musikako Lanbide Tituluaren jabe izanez gero, titulu horren kalifikazio-liburua ere aurkeztu beharko da. Bertan, berariazko batez



besteko nota azaldu beharko da, sarrera-probaren azken notan sartu ahal izan dadin, beti ere berariazko proba gainditzen bada. Dokumentazio hori 2021ko ekainaren 11ko goizeko 10:00ak baino lehenago aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz [sarrera.frogak@musikene.eus](mailto:sarrera.frogak@musikene.eus) helbidera bidaliko da. Ez da dokumenturik onartuko esandako ordu eta egunaren ondoren jasotzen bada

10.5.– 2618/1966 Dekretuaren arabera, Musika-irakasle tituluaren jabe izanez gero, tituluaren eta ziurtagiri akademikoaren fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Dokumentazio hori 2021ko ekainaren 11ko goizeko 10:00ak baino lehenago aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz [sarrera.frogak@musikene.eus](mailto:sarrera.frogak@musikene.eus) helbidera bidaliko da. Ez da dokumenturik onartuko esandako ordu eta egunaren ondoren jasotzen bada.

Kasu horretan, batez besteko nota kalkulatzeko, baremo hau hartuko da kontuan:

Matrikula/ohore-saria (10)  
Ohorezko aipamena (9,5)  
Bikain (9)  
Oso ondo (8)  
Nahikoa (6)

#### 11.– Erreklamazioak.

11.1.– Emaitzak argitaratu ondorengo bost egun baliodunetan izangaiek proben kalifikazioei buruzko erreklamazio idatziak egin ahal izango dituzte Musikeneko ikastetxean; erreklamazioak epaimahaiburuari zuzendu beharko zaizkio. Erreklamazio horiek aurkezteko epea amaitu eta, gehienez ere, hamar eguneko epea ebatzi eta iragarki-taulan jarriko dira.

11.2.– Epaimahaiaren ebazpenaren kontra, izangaiek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal diote Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita.

#### 12.- Dokumentazioaren zaintzea.

Probak egin diren zentruan gordeko da proben ondorioz sortutako dokumentazioa probak egin eta hiru hilabetez.

#### 13.– Musikenen sartzea.

13.1.– Sarrera-probak gainditu eta espezialitate bakoitzean eskainitako plazetarako aukeratutako ikasleek matrikula egin ahal izango dute Musikenen uztailaren lehenengo hamabostaldian, horretarako ezartzen diren egunetan.

13.2.- Espezialitate baten baino gehiagotan ikasposuta lortu duten ikasleek bat aukeratu beharko dute. Ikasketen lehenengo idaturterako espezialitate batean besterik ez da matrikula onartuko. Nahi izanez gero, hurrengo ikasturtean egin ahal izango du ikasleak matrikula bigarren espezialitate batean, horretarako berriz ere dagokion sarbide proban ikaspostua lortu behar duelarik, eta ikastetxearen oneritsia lortu.

13.3.- 1/2013 Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, pertsona ezinduen eskubideen Lege Orokorreko berridatzitako testuak finkatzen duena jarraituz, eskeintzen diren ikaspostuen %3a, %33 ezintasun maila bat aitortuta duten ikasleei gordeko zaie, beti ere ikasketa betebeharrak betetzen dituztelarik eta berariazko sarbide proba gainditzen



dutelarik. Hori horrela izateko, ezintasuna aitortuta duten ikasleek, ezintasun ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute inskripzioa egiterakoan, beste dokumentazioarekin batera.

13.4.- 971/2007, Errege Dekretuak, uztailak 13koak, goi mailako kirolari eta errendimendu handikoena, finkatzen duenez bere 9.4 artikuluan, %3eko ikaspostuak gordeko dira goi mailako kirolariak edo errendimendu handiko kirolariak direla agertzen duten ikasleentzako inskripzioa egiten duten momentuan, baldin eta ikasketa betebeharrak betetzen dituzten eta berariazko sarbide proba gainditzen duten.

13.5.- Matrikula formalizatzeko unean, izangaiek ziurtatu behar dute probak egiteko egunean deialdi honetako 3. atalean kasu bakoitzerako eskatzen diren betekizunak bazituztela, eta dokumentazio hau eman behar dute:

- Batxilergoa gainditu dutela adierazi duten izangaiek: Batxiler-tituluaren kopia konpultsatua edo eskatu izanaren ordezkagiria.
- 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu dutela aitortu dutenek: kalifikazio-txartelaren kopia konpultsatua.
- Heldutasun proba gaindituta dutela edo goi mailako lanbide heziketako ziklo baterako sarrera probako atal komuna gaindituta dutela adierazi duten izangaiek: proba hoiak gainditu izanaren agiriaren kopia konpultsatua.

13.6.- Horiek egiaztatu ezean, zerrendako hurrengo izangaia beteko du plaza.

13.7.- Bete gabeko plazarik geratzen bada, Musikenek plaza horiek esleitu ahal izango dizkie sarrera-probak beste musika-kontserbatorio edo musikako goi-mailako ikastegi batean gainditu dituzten ikasleei. Ikasle horiek onarpen-eskaerak egin ahal izango dituzte 2021ko uztailaren 1tik 15ra bitartean Musikeneko idazkaritzan. Eskaera horiek ikastegiko organo eskudunak ebatziko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko martxoaren 8a.

IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA

Eugenio Jiménez Ibáñez